AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1005

21/2014 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko bokal kargutik kentzea xedatzen duena.

2014ko otsailaren 1ean amaitu zen bere sei urteko agintaldia. Hori dela eta, bokal izateari utzi egin behar dio, hala xedatuta baitago Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 8.3 eta 8.4 artikuluan.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko otsailaren 25ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko bokal kargutik kentzea, eta bide batez, eskerrak ematea egin duen lanagatik.

Bigarrena.– Esandakoa gorabehera, aipatu bokalak dagozkion egitekoak betetzen jarraituko du, harik eta hurrengo agintaldirako izendatuko duten ordezko bokala karguaz jabetu arte.

Hirugarrena.– Dekretu honek 2014ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko otsailaren 25ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.